



II. eranskina, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2017ko martxoaren 6koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan 2017tik 2019ra bitartean izozki-postuak jarri eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozeduraren oinarrien eta baldintzen agiria onartzen dituen.

**BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO PORTUETAN 2017TIK 2019RA BITARTEAN
IZOZKI-POSTUAK JARRI ETA INSTALATZEKO JABARI-BAIMENEN
ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN BALDINTZEN AGIRIA.**

BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO PORTUETAN 2017TIK 2019RA BITARTEAN IZOZKI-POSTUAK JARRI ETA INSTALATZEKO JABARI-BAIMENEN ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN BALDINTZEN AGIRIA.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- Araubide juridikoa

Baimenak ez dakar portu-aldeko jabari publikoaren ezta Euskal Autonomia Erkidegoko jabari-ahalmenen lagapenik, eta testu bategin honetan ezarritakoa kontuan hartuta ematen da: Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

2.- Baimenaren xedea.

1.- Baimenaren xedea izozki-postuak jartzea eta ustiatzea da, eta horren adjudikazio-prozedura ebazpen honen bidez hasi da: Ebazpena, 2017ko otsailaren 23koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan 2017tik 2019ra bitartean izozki-postuak jarri eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozedura hasteko dena.

2.- Instalazioak hirigintza-ingurunean eta portu-aldeko jabari publikoko paisaian integratuta egon beharko dira.

3.- Baimenaren epea

1.- Baimena HIRU (3) urteko eperako (2017, 2018 eta 2019) ematen da. Honako hau da baimendutako aldia, lehenagoko eskubideak izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe:

2.- 2017. urtean: esleipenaren egunetik 2017ko urriaren 15era arte gehienez. Aldatu nahi izanez gero, jarduera amaitzeko eguna jakinarazi beharko zaio Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari, gutxienez 15 egun natural lehenago. Zuzendaritzak aldaketa hori berariaz baimendu beharko du.

3.- 2018. eta 2019. urteetan: gehienez zazpi (7) hilabeteko epea, martxoaren 15etik urriaren 15era bitartean. Bi denboraldi horietan, jarduera hasteko eta amaitzeko egunak jakinarazi beharko zaizkio Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari, gutxienez 15 egun natural lehenago. Zuzendaritzak egun horiek berariaz baimendu beharko ditu.

4.- Beste tituluak

a) Baimena eskuratzeak ez du esan nahi titularrak legeak ezartzen dituen lizentzia eta baimenak lortu eta mantendu behar ez dituenik eta dagozkion zergak ordaindu behar ez dituenik.

b) Gainera, ez du esan nahi titularrak lanarekin lotutako gaitan, gizarte-segurantzari eta laneko osasunean indarrean dauden xedapenak bete behar ez dituenik.

c) Era berean, baimenaren titularra behartuta dago indarrean dauden xedapenak edo aurrerago indarrean egongo direnak betetzera, emandako portu-aldeko jabari publikoari eta hango instalazioei eta jarduerari eragiten dietenak; horiek dira, bereziki, hirigintza-lizentziak eta -preskripzioak. Muntatuko dituzten instalazioek ezingo dituzte portu-aldeko zaintzak edo zortasun publikoak oztopatu.

5.- Ustiapenaren bermea eratzea

a) Adjudikazioaren ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik hamabost eguneko epean, baimenaren titularrak honako hau eman beharko du: mila (1.000) euroko ustiapen-bermea, eta hori egin ahal izateko dagokion ordaintzeko agiria helaraziko zaio.

b) Adjudikazio-prozeduran parte hartzeko bermea adjudikaziodunei itzuliko zaie ustiapenaren bermea eratzen denetik hilabeteko epean.

c) Baimendunak ez badu ustiapen-bermerik jartzen horretarako ezarritako epean, baimenari uko egin diola ulertuko da, eta prozeduraren bermea galduko du.

d) Ustiapen-bermeak honako hauei erantzun die: baimenaren ondorio diren betebeharrak guztiei, baimenaren baldintzak ez betetzeagatik titularrari ezarri ahal zaizkion zigorrak, eta ez baldintza horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte eta galerei.

e) Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak ustiapen-bermearen zati bat edo berme osoa exekutatzen badu, baimendunak osatu edo berriro osorik jarri beharko du, zenbatekoa gutxitu egin dela jakinarazten diotenetik hilabeteko epean. Betebehar hori betetzen ez bada, baimena iraungi egingo da.

f) Interesdunak, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren iritziz, justifikaziorik gabe uko egiten badio tituluari, galdu egingo du bermea.

6.- Jabari publikoa zaintzea.

a) Baimendunak jabari publikoa eta instalazioak behar bezala erabiltzeko moduan, garbi eta txukun mantendu beharko ditu. Konponketa guztiak, ohizkoak nahiz bereziak, bere kontura izango dira.

b) Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak une oro ikuskatu ahal izango ditu emandako jabari publikoa eta instalazioak, zer egoeratan dauden ikusteko, eta zer konponketa egin behar diren adieraziko du. Baimenaren titularra behartuta dago konponketa horiek bere kontura egitera, adieraziko zaion epean.

c) Baimenaren titularrak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak agindutako mantentze-lanak egiten ez dituenean, Zuzendaritzak, aldez aurretik ohartarazita, lanen betearazte subsidiarioa egin ahaliko du, eta gastuak zein kalteak eta galerak baimenaren titularraren kontura izango dira. Hori guztia Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 95. eta 98. artikuluekin bat etorriz egingo da.

d) Baimenaren xedea den jabari publikoa osorik edo horren zati bat baimendunaren eta haren ardurapeko pertsonaren baten dolo edo erruz suntsituz gero, baimenaren titularra behartuta egongo da lanak berehala berreraikitzea, eta eskatu ahal zaizkion gainerako ardurak ere bete beharko ditu.

e) Edateko uraren, saneamenduaren, gasaren eta elektrizitatearen zerbitzuek enpresa hornitzaileek alta egiteko mementoan jartzen dituzten baldintzak bete behar dituzte. Adjudikaziodunak, bere kontura, enpresa bakoitzak eskatzen dituen lanak egin beharko ditu.

7.- Baimenaren indarraldian instalazioak aldatzea

Baimenaren indarraldian, baimendunak ezingo du instalazioen aldaketarik edo handitze-lanik egin, aurrez Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren baimenik ez badu. Baldintza hori betetzen ez bada, baimena iraungi egingo da.

8.- Tasak

a) Baimendunak, baimena eman zaion ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera, A-1 tasa ordaindu beharko du, portu-aldeko jabari publikoa okupatzeagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

2017. urterako, tasaren egungo zenbatekoa **0,438101 euro/ m²/egun** da **(eguneratzea 2017ko Aurrekontuen Legean ezarrita dago)**.

b) Baimendutako eremuaren okupazioa urtebetetik gora luzatzen bada, urtetik gora jotzen duen zatiari C-1 tarifako zenbatekoak aplikatuko zaizkio, baita horri dagozkion gainerako arauak ere, honako hauekin bat eginez: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen Legeko 196.10.1 artikuluan ezarritako zenbatekoarekin eta 196. 10.3 artikuluan ezarritako %50eko errekarquarekin.

c) Kanona aplikatuta ateratzen den diru kopuruari une bakoitzean indarrean dagoen BEZa gehitu beharko zaio, eta urtero A-1 tasaren araudiak ezarritako ehunekoaren arabera eguneratuko da.

II. TITULUA.- USTIAPEN BALDINTZAK

9.- Baimenaren xedea

a) Baimena berariaz erabiliko da emate-tituluan zehaztutako xederako ("IZOZKIAK SALTZEKO POSTUA ...zk."). Okupatzeko baimentzen den jabari publikoa

eta han jarritako instalazioak ezingo dira erabili baimenean adierazitako erabileretarako ez bada.

b) Titulu gaitzailearen xedean agertzen ez den jardueraren bat burutzea baimena iraungitzeko arrazoia izango da.

10.- Baimena kudeatzea

a) Baimendunak bere gain hartuko du baimena kudeatzeko arriskua. Garraio Azpiegituren Zuzendaritza ez da, inola ere, baimendunak bere gain hartutako betebeharren erantzule izango, ezta horrek hirugarrenei sortutako kalteena ere.

b) Baimena ustiatzeko behar dituen langile guztiak baimendunaren kontura izango dira.

c) Halaber, haren kontura izango dira: elektrizitatea, ura, telefonoa, zabor-bilketa, jarduera aurrera eramateko behar diren beste zerbitzu batzuk eta, oro har, baimenak eragiten dituen gastu guztiak. Era berean, baimendunari dagokio kasuan kasuko hornidura horiek kontratatzea, harguneak egitea eta horiengatik ordaindu beharrekoa ordaintzea.

d) Ez da Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren ardura izango espazioan egon daitezkeen salgaiak, makinak edo tresnak galdu, hondatu edo lermatzea, arrazoia zeinahi ere den.

e) Baimenaren titularrak egunero garbitu beharko ditu okupatutako eremua eta izozki-postuaren alboko eremua, eta horien osasungarritasun-baldintzak mantendu beharko ditu.

11.- Baimendunaren jarduera-eza

a) Baimendutako aldiaren barruan, emandako jabari publikoko ondasunak 15 egunez ez erabiltzea baimena iraungitzeko arrazoia izango da, horretarako arrazoi zuzenik ez badago behintzat.

b) Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari dagokio baimendunaren baimenaren erabilera eza justifikatzeko alegaturiko arrazoiak baloratzea. Horretarako, 15 eguneko epea igaro baino lehen, emandako jabari publikoaren erabilera eza eragin duten inguruabarren berri eman beharko dio baimendunak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari. Baimendunak ez badu, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren aburuz, behar bezala justifikatzen emandako jabari publikoaren erabilera eza, horrek baimena iraungitzeko espedientea hasiko du.

12.- Neurri prebentiboak eta segurtasunekoak

a) Baimendunak, lantokiaren titular den heinean, enpresa-jarduerak koordinatzeko betebeharra ere badu, hala ezartzen baitu Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeak.

b) Era berean, baimendunak portu-instalazioak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen bestelako neurriak ere hartu beharko ditu.

13.- Ingurumen-neurriak

a) Hondakin-uren isuriek eta andelak garbitzetik edo gainazaleko jariatzetik datozen isuriek isurien arloko indarreko araudia bete behar dute.

b) Instalazioek ez badituzte bete beharreko arauak betetzen, baimendunak, agintari eskudunak jarritako epean, arau horiek betetzeko behar diren neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu.

14.- Aseguruak

Baimendunak bere jarduera aurrera eramateko nahitaezkoak diren aseguruak egin beharko ditu.

15.- Transmisioa

a) Baimena pertsonala da eta ezin da bizirik dauden pertsonen artean besterendu; hortaz, debekatuta dago hirugarrenei lagatzea haiek erabiltzeko.

b) Baimenduna hiltzen bada, haren kausadunak, jaraunspen nahiz legatu bidez izan, haren eskubideetan eta betebeharretan subrogatu ahal izango dira, heriotza gertatu eta hiru hilabeteko epean. Epe hori igaro eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari ez bazaio berariaz halakorik adierazi, baimenari uko egin zaiola ulertuko da.

c) Oinordeko bat baino gehiago badago, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak ordezkari bat izendatzeko eskatuko die ondorio guztietarako.

III. TITULUA.- BAIMENA AZKENTZEA

16.- Azkentzeko arrazoiak

Hona hemen baimena azkentzeko arrazoiak:

- a.- Emakidaren epea igarotzea.
- b.- Ofiziozko berrikustea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako kasuetan.
- c.- Titularrak uko egitea; Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak hori onartu ahal izango du berari edo hirugarrenei kalterik eragiten ez dienean bakarrik.
- d.- Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren eta baimenaren titularraren arteko adostasuna.
- e.- Baimenaren titularra den sozietatea desegin edo azkentzea, bat-egitearen edo zatiketaren kasuetan izan ezik.
- f.- Baliogabetzea.
- g.- Iraungitzea.
- h.- Jabari publikoko tituluan adierazitako baimena edo lizentzia amaitzea.

17.- Emakida-epea betetzea.

Baimenaren epea amaitzen denean, baimena automatikoki iraungiko da eta titularrak baldintza ezin hobeetan eta erabat garbi utzi beharko du espazioa.

18.- Baimenari uko egitea.

Baimenaren titularrak horri uko egiten badio, bere kontura desmuntatu beharko ditu instalazioak. Jabari publikoa guztiz libre utzi beharko du adierazitako epean, eta bermea galduko du.

19.- Baimena baliogabetzea.

1. Baimena edozein unetan alde bakarrez ezeztatu ahal izango du Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak, kalte-ordainetarako eskubiderik gabe, baimena bateraezina denean geroago onetsitako obra edo planekin, portuaren ustiapena oztopatzen dutenean edo portu-eremuaren erabilera eragozten dutenean interes handiagoa duten jardueri begira. Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari dagokio aipatutako egoeretan ebazpen arrazoitua ematea, baimenaren titularrari entzunaldia eskaini ondoren.

b) Kasu horretan, baimenaren titularrak espazioa libre utzi beharko du jakinarazten dioten egunetik hilabete BATEko (1) epean.

20.- Baimenaren iraungitzea.

1.- Hona hemen baimena iraungitzeko arrazoiak:

- a) Izozki-postua ez instalatzea edo horren ustiapena ez hastea baimendutako aldiaren hasieratik 15 eguneko epean, justifikatutako arrazoiengatik ez bada.
- b) Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak igorritako tasen likidazio bat ez ordaintzea hilabeteko epean. Iraungitze-espedientea hasteko nahikoa izango da ordainketa ez egitea borondatezko epean. Espedientea abiarazi eta gero ere, artxibatzea erabaki ahal izango da, baldin eta ebazpena onartu baino lehen, premiamendu-prozeduran, dagokiona ordaintzen bada eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak jarritako bermea eratzen bada.
- c) Izozki-postuaren jarduera-eza edo hori ez ustiatzea hamabost (15) eguneko epean, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren ustez horrek justifikatutako arrazoirik ez badu.
- d) Emakidaren xede ez den jabari publikoa okupatzea.
- e) Baimendutako instalazioaren azalera, bolumena edo garaiera handitzea.
- f) Tituluaren xedean ageri ez diren jarduerak gauzatzea.
- g) Erabilera osoa edo horren zati bat hirugarren bati lagatzea.

- h) Emate-titulua besterentzea.
- i) Hipotekak edo bestelako berme-eskubideak eratzea, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren baimenik gabe.
- j) Dagozkion bermeak ez berrezartzea edo osatzea, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak alde aurretik hori eskatzen duenean.
- k) Bestelako baldintza batzuk ez betetzea, eta horiek kontuan ez hartzea iraungitze-arrazoitzat jo denean emate-tituluan.

2.- Iraungitze-adierazpenak berarekin ekarriko du eratutako bermea galtzea.

3.- Baimena iraungitzat ematen bada, haren jabeak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko.

21.- Azkentzearen ondorioak

1.- Baimenaren epea amaitzen denean, horren titularrak bere kontura desmuntatu beharko ditu instalazioak adierazitako epean, eta jabari publikoa erabili aurretik zegoen egoeran utzi beharko du.

2.- Betebehar hori betetzearen akta egingo da, eta han jabari publikoaren egoera adieraziko da.

3.- Baimenaren titularrak ez baditu instalazioak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak adierazitakoaren arabera kentzen, horrek subsidiarioki betearaziko ditu lanak, eta gastuak titularraren kontura izango dira.

4.- Baimenaren titularrak ez baditu borondatez ordaintzen Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak subsidiarioki instalazioak desmuntatzeko eta kentzeko gastuak, eta eratutako bermeak ezin baditu gastu horiek estali, administrazio-premiamenduaren prozedura erabili ahalko da.

5.- Baimena iraungitzen denean, ustiapen-bermea itzuliko zaio horren titularrari, horrek alde aurretik eskatu badu. Ez zaio itzuliko uko egiten badio edo iraungitzen bada, eta egiaztatu beharko du baimenaren baldintzetan ezarritako betebeharrak bete dituela. Hala badagokio, zehapenengatik eta erantzukizunengatik ordaindu beharreko zenbatekoa kenduko zaio titularrari.

6.- Eratutako bermeak itzultzeko eskubidea dagokion mementotik bost urteko epean preskribatuko da.

7.- Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak ez du bere gain hartuko baimenaren titularraren inolako lan- edo ekonomia-izaerako betebeharririk, azkendutako tituluaren xede den jarduerarekin lotuta dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

22.- Harrera-akta.

1.- Portu-aldeko jabari publikoaren egoera adierazita dagoen akta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak egingo du, baimenduna bertan dagoela. Akta horretan, portu-aldeko jabari publikoa zer egoeratan dagoen aipatuko da, eta kalterik balego, horiek ere zehaztuko lirатеke.

2.- Kalterik balego, dagokion espedientearen izapideak egiteko oinarria izango da akta; bertan, behar diren konponketen zenbatekoa zehaztuko da, eta baimendunari eskatuko zaio kopuru hori. Baimendunak dagokiona ordaintzen ez badu, ustiapen-bermeari helduko zaio, eta hori aski ez bada, eta beharrezko gertatuz gero, premiamendu bidezko administrazio-prozedurara joko da.

3.- Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak, beste izapiderik gabe, ondasunen eta instalazioen edukitza hartuko du, eta elektrizitatea, ura, gasa eta telefonia hornitzeko enpresei eskatu ahal izango die kasuan kasuko hornitzea etetea.

IV. TITULUA.- ZIGOR-ARAU BIDEA

23.- Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hausteak aldeztu aurretik kasuan kasuko administrazio-espedientearen instrukzioa egin ostean zehatuko dira, administrazio prozedura arautzen duen legeriak ezarritakoaren arabera.